


"Elitea beste mundu bat da; jauzi handia dago"

Laida Alzola Eulen-Amenabar taldera batu da aurten. Mallorcako Itzulian UCI mailako proba batean debutatu du. "Ez du zerikusirik ezagutzen nuenagaz", esan du. / 20



"GARITAONANDIARI BURUZ IKASTEAK EUSKARAREN KONTZIENTZIA ZABALTZEKO BALIO DEZAKE"

Pello Zabarte zaldibartarra Garitaonandia herrikidearen biografia eta ekarpenak ikertzen dabil. Zaldibarko Udalak eta Gerediagak Garitaonandia omenduko dute haren jaiotzaren 150. urteurrenean. / 2-3



Txelu Angoitiak Walter Benjaminen bizitza eta heriotza ardatz dituen kronika liburua idatzi du / 17

DENDAK BAI FEST

DURANGO 2026 - LANDAKO GUNEA

OTSAILAK 27, 28 eta MARTXOAK 1

Ostirala : 10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:30
Larunbata : 10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:30
Igandea : 11:00 – 14:00



Parte hartu zakezun

940 730 100

Demak ibil

www.dendakbai.eus

Laguntzaileak



Antolatzailea



Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Bittor Garitaonandia euskaltzalea, idazlea, konpositorea eta euskaltzain urgazlea izan zen. Zuk zelan definituko zenuke?

Euskaltzale edo euskararen aldeko aktibista izan zen, beste ezer baino gehiago. Euskararen alde egitea izan zen bere motibazio nagusietariko bat, eta grina horrek ardaztu zuen bere jardun artistikoa, ikerlari jarduna zein elizkoia. XX. mende hasieran, Euskal Pizkundean saretuta zegoen gainerako elkartek eta eragileekin. Garai hartan sortu ziren euskarazko egunkariak eta astekariak. Euskaltzaindia sortu zen, Eusko Ikaskuntza. Eta garai horretakoak dira euskararen estandarizazioari buruzko lehenengo eztabaidak. Korrante horretan kokatu behar da Bittor Garitaonandia. Beste hainbategaz batera eragin zuen. Era berean, inportantea da kazetaria izan zela aipatzea. Argia aldizkaria sortu zuen beste hainbategaz. Ez gaur egungo Argia, Gerra Zibilaren aurreko Argia aldizkaria baino. Bertako zuzendaria izan zen hil arte, bere bizitzako azken zortzi-bederatzi urteetan. **Korrante horretan zein ekarpen egin zuen eta zeintzuk ale utzi zituen?**

Elizgizona izan zen, abadea, eta baita musikaria, kantaria eta konpositorea ere. Organoa jotzen zuen eta bertsotan ere ibiltzen zen. Umeentzako ipuinak idatzi zituen eta hainbat argitalpenen liburu bilduma ere bai. Dramaturgoa ere izan zen, antzezlanak idatzi zituen, eta kontuan hartu behar da sasoi hartan oso jende gutxi zegoela euskarazko hiru antzerki idatzi zituena. Euskaltzaina ere izan zen; euskara eta toponimia ikertu zituen. **Garaiko aktibista euskaltzalea izan zela esan daiteke?**

Berba konkretua zein den esaten ez nuke jakingo, baina kontzeptua hori da. Bera modu kontzientean aritu zen euskararen alde. Kontzientzia hori esplizitua zen bere bokazioan eta motibazioan. Euskararen alde egite hori nabarmena da bere idatzietan, izan antzerki obretan, izan ipuin liburuetan, eta zeresanik ez aldizkarietan artikuluak idazten zituenean.

Zaldibarren jaio zen, Zaldia plaza-ko Zapatarikoena etxean, baina batetik bestera ibili zen gero.

Kuriosoa da, desplazamendu guztiak edo gehienak musikari

"Desoreka handia dago Garitaonandiaren ekarpenen eta berarekiko ezagutzaren artean"

PELLO ZABARTE NARBAIZA IKERLARIA

Zaldibartarra Bittor Garitaonandia herrikidearen biografia eta ekarpena aztertzen dabil Gerediagaren ikerketa bekari eskerrak. Aurtengo Astolan kaleratuko du ikerlana. Martxoan lau ekintza egingo dituzte Garitaonandia gogoratzeko



Pello Zabartek Gerediagaren Durangaldeko Gazte Ikerlarien sariketa irabazi zuen iaz.

lotuta egin zituelako. Zaldibarren jaio zen eta bere aita herriko maisua izan zen. Durangon eta Ermuan eman zituen lehenengo pausoak musikan, eta 12 urte gaz Urduñara joan zen, jesuitenera. Musikan eskolatzeak aukera gehiago izan zuen han. Handik Salamancara joan zen abade ikasketak egitera, eta Zamoran amaitu zuen katedralean kantari, tenore. Lau urte egin zituen han, eta Donostiara joan zen gero. Orfeoiaz hartu-eman izan zuen, eta han eragina izaten

"EUSKALTZALE EDO EUSKARAREN ALDEKO AKTIBISTA IZAN ZEN BESTE EZER BAINO GEHIAGO"

hasi zen. Eta jada Donostian kokatuta, bere ekoizpen literario guztiak han egin zuen eztanda. **Beraz, Donostian egin zuen eztanda bere euskaltzaleatasunak?**

Zalantzarik barik, bai. Donostian, eta batez ere bere bizitzako azken hamabost urteetan. Gazte hil zen, 50 urte pasatxogaz, eta esan daiteke bere produkzio osoa bizitzako azken hamabost urteetan egin zuela. Bazuen kanturen bat lehenagotik, baina bere hiru antzerki obrak, ipuin liburuak, Argia aldizkari-ko ibilbidea, euskaltzain izatea, euskarara estandarizatzeko lehenengo debateak ematea... hori guzti hori 1915etik 1929ra egin zuen.

Zaldibartar bat beste zaldibartar bat ikertzen. Herrikidea gehiago ezagutzeko grinak bultzatu zaitu Garitaonandia ikertzera?

Nik neukan susmoa zen oso pertsona ezezaguna zela, bai Zaldibarren bertan bai hortik kanpora. Desoreka moduko bat zegoela bere ekarpenaren eta berarekiko ezagutza mailaren artean. Eta ikertu ahala hasierako susmo haiek berretsi ditut. Baina nabarmentzekoa da sasoi hartan hiru antzerki obra eta umeentzako ipuin liburu bat idatzi zituela, eta ekarpen azpimarragarriak egin zizkiola euskara hutsezko kazetaritzari. Izan ere, Argiak tirada handia zuen

"AUERRERA EGITEKO GAITASUNA IZAN ZUEN EUSKARAREN EGOERA OKERTZEN ZEBILEN GARAIA"

momentu hartan: 7.000-8.000 ale euskara hutsean astero. Eta euskara batua kontzeptu sortu bakoa bazen ere, estandarizazio ideien alde egin zuen. Berak planteatu zuen *Gipuzkera osatuaren* kontzeptua. Hau da: erdialdeko euskalkia oinarritzat hartzea eta beste euskalkiekin fintzea. Euskaldunen arteko ulergarritasunaren alde egin zuen. Gerora, Resurrección Maria Azkuek garatu zuen kontzeptu hori.

Zuk zer ikasi duzu beragandik?

Esango nuke sortzailea izan zela zentzurik zabalenean. Ez zegoen euskara kazetaritzarik. Zero. Gaur egun guretzat normala den zerbait edo maila batean normala den zerbait ez zen existitzen. Eta orduan eurek planteatu zuten: "Bai, posible da, eta sortuko dugu gainera". Eta hiru antzezlan eta umeentzako literatura sortu eta idatzi zituen euskaraz. Neurri batean, ameslariak izan ziren.

Martxoan 150 urte beteko dira jaio zela, eta Zaldibarko Udalak eta Gerediagak omenaldi ekitaldiak antolatuta dituzte. Zer ikasi beharko genuke omenaldi hauetatik?

Bere figura gehiago ezagutu beharko genuke, zaldibartarren artean batez ere, eta, horrez gainera, testuinguru zehatz batean kokatu. Azken finean, euskararen egoera okertzen zebilen momentu batean aurrera egiteko gaitasuna izan zuen, eta elkartek, erakundeak eta komunikabideak sortu zituen. Berak eta bere ingurukoek produkzio artistiko-literarioa hasi zuten. Testuingurua asko aldatu da harrezkero, baina beste gauza batzuk ez hainbeste, ezta? Euskararen egoera, esaterako. Beharbada baliagarria izan daiteke kontzientzia zabaltzeko.

Garitaonandiaz ikastea euskara pizteko gako izan daitekeelako

Lau ekintza antolatu dituzte zaldibartar ospetsuaren ekarpenez ikasteko. Martxoan izango dira denak

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak eta Gerediaga Elkarteak Bittor Garitaonandia omentzeko ekintzen berri eman zuten eguaztenean. Lau ekitaldi izango dira, eta martxoan egingo dituzte denak. Eneritz

Azpitarate alkateak esan zuen martxoa "zaldibartar emankorraren ekarpenak gogoratzeko eta ohoratzeko hilabetea" izango dela: "Garitaonandiak argi izpi zabal bat ekarri zuen dena egiteke zegoen garaian. Ameslaria

izan zen eta bete-betean asmatu zuen martxan ipinitako proiektu bakoitza jendarteratzen. Ezinbestekoa dugu bere figura merezi duen moduan ohoratzea". Gotzon Gomezek, Gerediaga Elkartearen presidentea, Garitaonandiaren lana jasotzea, ikertzea eta zabaltzea garrantzitsua dela azpimarratu zuen: "Haren oroi-menerako egingo dugun ariketak etorkizunerako pistak ere eman ditzake, euskararentzat pizkunde berri bat aldarrikatzen ari garen aldi honetan".



Gotzon Gomez eta Eneritz Azpitarte, omenaldi sortaren aurkezpenean. ZALDIBARKO UDALA

Egitaraua, puntuka



ERAKUSKETA ETA BISITAK MARTXOAREN 5ETIK 15ERA

Omenaldi sortako lehenengo ekitaldia Garitaonandiaren ibilbidea ezagutarazteko erakusketa izango da. Espozizioa liburutegi zaharrean egongo da ikusgai, martxoaren 5etik 15era. Besteak beste, panel informatiboak, idatziak eta partiturak egongo dira. Irekiera martxoaren 5ean izango da, 19:00etan.



SARI BANAKETA MARTXOAREN 6AN, KAPERAN

Martxoaren 6an, Bittor Garitaonandiaren omenezko lehenengo ipuin lehiaketako sari banaketa egingo dute. Lehiaketa abendutik urtarrilera jokatu zen, eta 8tik 12 urtera bitarteko ume zaldibartarrek parte hartu zuten. Denera, parte-hartzaileek 38 ipuin aurkeztu zituzten. Ekitaldia ospitale ondoko kaperan izango da, 18:30ean.



EUSKALTZAINDIA ZALDIBARREN MARTXOAREN 7AN, UDALETXEAN

Martxoaren 7an, Euskaltzaindia Zaldibarrera etorriko da. Euskararen Akademiako kideek eta udal ordezkariak jendaurreko batzarra egingo dute udaletxean, 12:00etan. Joseba Sarrionandia idazleak Bittor Garitaonandiaz eta Zaldibarko literaturaz berba egiteko baliatuko du bilera hori.



DONOSTIAKO ORFEOIA KONTZERTUA OLAZARREN

Omenaldi sorta musika doinuekin amaituko da eta Donostiako Orfeoia kontzertua emanango du Olazarko frontoian. Emanaldia martxoaren 14an izango da, 19:30ean. Sarrerak otsailaren 23tik martxoaren 6ra egongo dira salgai, bost euroan, Zaldibarko udal liburutegian.

Eskutik: belaunaldiak aldatzen dituzten loturak



Belaunaldiarteko bilera, Lauaxetako ikasleen eta IMQ Igurco Orueko adinekoen artekoa

IMQ Igurco Orue

Hainbat belaunalditako gizataldeak jarduera berberen inguruan biltzeko filosofia aspaldidanik dago sendotuta, eta jarduera horien artean, nabarmentzekoak dira adinekoek ikasleekin egiten dituztenak. Horren haritik, IMQ Igurco Orue egoitzako eta Lauaxeta Ikastolako arduradunek 'Eskutik' programa sortu zuten duela urte batzuk, eta horrek emaitza oso aberasgarriak lortu zituen batzuentzat zein besteentzat.

Martxan jarri zenetik, Lauaxetako ikasleek Orueko adinekoekin igarotzen duten minutu oroz gozatzen dute egoitzakoek. Begien bistakoa da: irribarreak, keinuak, bizi-indarra eta motibazioa, barra-barra. Ikasleen adorea kutsakorra baita, eta berehala sortzen dituzte loturak.

Gaur egun, Orue eta Lauaxetaren arteko Belaunaldiarteko Programak 16 eta 17 urteko gazteen lau talde biltzen ditu, aste-oro jarduerak egiteko, eta 12 eta 13 urteko gazteen beste talde batzuk, egoitzan erakusketa diktikoak antolatzeke, Musika irakasgaiaren barruan. Halaber, Gizarte Justiziari buruzko Lehen Hezkuntzako talde bat ere bada, eta aurtengo Korrika Txikia hezkuntza-etapa horretako ikasleekin egin nahi da.

Helburua da belaunaldien artean eta familia barruan harreman berriak sustatzea, gizarte inklusiboagoa bultzatzeko, gizarte-loturak sendotzeko eta jarduerazko pozgarriak sortzeko.

Hala, programaren eskutik, adinekoen gogo-aldatea, bizi-indarra, autoestimua eta motibazioa

nabarmen hobetzen dira. Gizarte-elkarreraginak isolatze eta bakartze sentimenduak murrizten ditu, eta adinekoek komunitatean duten parte-hartzeari balio handiagoa ematen dio, bai eta ezagutzaren, bizi-esperientzien eta balioen transmititzailerik gisa dagokien zereginari ere.

Ikasleek, beren aldetik, sentitzen dute norbere balioa, konfiantza, gizarte-erantzukizuna eta heldutasuna indartzen zaizkiela. Izan ere, programak hainbat balio jorratzen ditu, hala nola tolerantzia, errespetua, enpatia, elkartzasuna eta adinekoekiko begirunea. Era berean, arreta soziosanitarioaren rol profesionalak ezagutzeko aukera ematen du, eta egoitza-zentroaren inguruan zaintza-ekosistema bat sustatzen du.



Aurtengo surrandi taldea. KRISKITIN

Surrandiek buruzagiaren figura berreskuratu dute

"Dokumentazio historikoagaitik dakigu surrandiak buruzagi bategaz irteten zirela. XIX. mendeko agirietan agertzen da hori. Aurten figura hori berreskuratu dugu: Karmelo Alberdi izan da buruzagia", azaldu du Kriskitin taldeko Jaione Fernandez de Retanak

Ekaitz Herrera DURANGO

Kriskitin dantza taldeak beste pauso bat eman du Durangoko berezko inauteriak berreskuratzeko. Aurten nobedade txiki bategaz zirikatatu dituzte herritarrak, artxibo historikoek jasotako figura bat berreskuratu dute eta: surrاندien buruzagi figura. "1893ko akta batek erakusten du Durangon Tomas Arana izeneko herritar bat zegoela, surrandia bera, eta kalejiran irteteko baimena eskatu ziola udalari. Badakigu metalezko turuta bat erabiltzen zuena, eta badakigu surrandiak kalean zehar asko urruntzen ziren bakoitzean turuta jo eta haiek batzea zena bere lana", azaldu du Jaione

Fernandez de Retana dantza taldeko kideak. Datu historiko hori, hain zuzen ere, Marisa Barrenak dokumentatu zuen 2014ko Astola aldizkarian, Durangoko inauteriei eskainitako artikuluan.

Kriskitin, Jaizale eta Tabira Musika Banda 2000. urtean kaleratu ziren surrandi jantzita, eta urte hauetan guztietan Durangoko berezko inauteriak berreskuratzen joan dira: "Kontua da azken urte hauetan surrandiei forma ematen joan garela. Ander Ertzillak eta Jesus Egigurenek doinuak sortu zituzten; Unai Iturriaga, Ixone Aroma eta Ane Belaustegi letrak sortzen joan dira, eta urterik urte Durangoko inauteriak osa-

tu ditugu. Orain arte, buruzagiaren figura airean izan dugu, eta pentsatu dugu, historian jasota dagoenez, aurten hura berreskuratzea. Karmelo Alberdik egin ditu buruzagi lanak. Orain urte batzuk Abel Iriondok bete zuen figura hori, modu naturalean. Aurten, ostera, leku propioa eman diogu buruzagiarri, bere presentzia propioa, turuta eta guzti", azaldu du Fernandez de Retanak.

Eta halantxik, aspaldiko ohi-tura berreskuratuta, 1893ko Tomas Aranak 2026ko Karmelo Alberdiri pasatu dio buruzagitzako lekukoa. Eta Kriskitinek koska bat gehiago egin du ondare zaharraren berreskurapenean.

"Buruzagi lanak egiteko itxura aproposa dudala esan didate!"

KARMELO ALBERDI SURRANDIEN BURUZAGIA IZAN DA AURTEN



KARMELO ALBERDI

lurretarrak ia 40 urte daramatza Kriskitin taldean. Dekoratu muntatzaile izan zen hasieran, dantzaria gero, errebonbiloak ere gorpuztu ditu, eta Ziripot pertsonaiari bizia eman dio. Aurten, artxibo historikoetan ageri den buruzagia gorpuztu du.

Zelan jaso zenuen buruzagia izateko proposamena?

Kriskitin taldeko batzordean irten zen nire izena, eta uste dut nire arrebaren, Pili Alberdiren, proposamena izan zela. Kontua da surrandiak asko sakabanatzen direla kalean herritarrek zirikatatu bitartean, eta dantza egiteko ordua heltzen denean behar den moduan batzea komeni dela. Orduan, surrandiak batzeko edo, turutagaz irtetea pentsatu zuten. Niri egin zidaten proposamena, eta hasieran pentsatu nuen: "Ai ama! Zelan egokitu zait hori niri?". Ondo egin gura nuen rol hori.

Surrاندiak ondo portatu dira? Jaramon egin dizute?

Denerik egon da! (barrez). Egia esanda, euria dela-eta nahiko inauteri tristeak izan dira. 200 puxika kaleratu genituen joan zen zapatuan, baina eguraldiak dena baldintzatu zuen. Edozelan ere, jendea pozarren ibili da merkatu plazan, Andra Marian. Hartza batetik bestera, surrandiak eta herritarrek zirikatzen. Eta ni, ba, pozik turutagaz! Hasieran oso urduri nengoen. Familiak, alabak eta lagunek esaten zidaten: "Aita! Zergaitik ez?". Eta, behin hasita, pozarren. Jendeak buruzagi lanak egiteko itxura aproposa dudala esan dit! Inauterietako batzordeak hala gura badu, prest nago datorren urtean ere buruzagia izateko.

Gainera, nabarmentzekoa da buruzagiarena figura historikoa dela.

Bai. Marisa Barrenak egindako ikerketari eskerrak badakigu Tomas Arana izeneko durangar bat egon zela, eta hark betetzen zituela surrاندien buruzagi lanak. Txistulariak egoten ziren, eta haiek musika jotzen zuten. Eta Tomas Aranak turuta bat zeukan, sakabanatuta zeuden surrandiak batzeko eta dantzatzera deitzeko. Orain urte batzuk Abel Iriondok bete zuen funtzio hori, modu esporadikoan. Baina aurten modu kontzientean berreskuratu dugu usadio hori.

Gutxi gorabehera, mende eta erdiko hutsunea dago Tomas Aranaren sasotik Karmelo Alberdiren sasoir.

Eta, badakizu zer? Posible dela elkarren artean lotura familiarra egotea. Nire koinataren urrutiko ahaidea dela uste dugu. Ematen du halako herentzia moduko bat ailegatu zaidala. Pozik nago.

Komun publikoa Landako eta Muruetatorre arteko eremuan

Udalak esan duenez, behin-behineko egoeran izandako eremua urbanizatu gura du eta bertan komun bat ipini

Ekaitz Herrera DURANGO

Madalenako plaza berrizterakoan, Durangoko Udalak komun publikoa kendu behar izan zuen handik, eta auzoko inguruak azpiegitura hori barik egon dira orain arte. Baina orain komun publikoa be-

reskuratzea erabaki dute. Madalenatik gertu ipiniko dute, Landako etorbidearen eta Muruetatorreko etxadiaren arteko zehargunean. Udalak dio kokapen horrek "onura bikoitza" ekarriko duela: zerbitzua autobus geltokiko bi-

daiariei eskaintzeaz gainera, behin-behinekotasun egoeran egondako eremua urbanizatuko dute. Proiektuak 162.000 euroko kostua izango du.

Era berean, udalak beste jarduketak bat egingo du Madalena aldean. Saibi kalea birmoldatuko dute, eta "belaunaldien arteko topalekua" atondu. Udal Euskaltegia izandako eraikinean adinekoen zentroa ipini gura dutela eta, udalak pareko plazatxoak egokitu gura du 14 urtetik gorako gazteekin hartu-emana bultzatzeko.



Komuna Landako etorbidearen eta Muruetatorreren artean ipiniko dute.

Leku eta ekintza berriak Berbaroren udalekuetan

Euskara elkarteak prest ditu aurtengo udalekuak. Izen emateak martxoaren 2tik (09:00etan hasita) martxoaren 5era (16:00ak arte) egin beharko dira. Berbarok jakinarazi du plaza guztiak beteko balira, zozketa egingo duela martxoaren 6an

Ekaitz Herrera DURANGO

Egunotan euria gogotik egin arren, Berbaroko kideak udako eguzkiari begira ipini dira: euskara elkarte udalekuetako eskaintza berria prestatzen dabil, eta, iragarri duenez, aurtengo hainbat nobedade egongo da. Batetik, egonaldi finkoa Uitzin egingo dute (Larraun, Nafarroa), txanda bitan. LH3tik LH6rako ikasleek parte hartu ahal izango dute bertan. Bestetik, udaleku ibiltari bi egingo dituzte. Bilbotik Areatzara (ibilbide txikia) eta Durangotik Lanestosara (ibilaldi handia). Horietan DBH1etik eta Batxilergo arteko ikasleek parte hartuko dute, adinaren arabera. Azkenik, urtero legez, Udan Olgetan programa eskainiko diete 4tik 10 urtera arteko umeei, Durangon bertan.

Izen emateak

Udalekuetarako izen emateak martxoaren 2tik (09:00etan hasita) martxoaren 5era (16:00ak



Aurreko edizio bateko udaleku ibiltari bat. BERBARO

arte) egin beharko dira. Berbarok aurreratu du plaza guztiak beteko balira zozketa egingo dutela martxoaren 6an. Matrikuladunek martxoaren 14an entregatu beharko dituzte fitxak, beranduenez. Azkenik, plazaren bat libre geratuko balitz, Berba-

rok ezohiko izen ematea aktibatuko luke. Kasu horretan, martxoaren 16tik 20ra zabalduko dituzte izen emateak.

Udalekuei buruzko egutegiak, prezioak, adin-tarteak eta ezauzgarri guztiak berbaro.eus atarian kontsultatu daitezke.



Ekitaldi amaieran familia argazkia egin zuten. IREKIA

Elkartegiak Kontzilia Sarearen urteroko topaketa hartu du

Durangoko ekitaldian zortzi enpresa batu ziren lana eta familia bateratzeko sarera. Egun, 43 dira sareko kideak

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Kontzilia Sareak tamaina eta sektore guztietako enpresak batzen ditu familia eta lan erantzukidea helburu. Asteon, sare horren urteroko topaketa egin dute Durangon, eta bertan zortzi enpresa gehiago batu dira sarera: Urgatzi, Suspertu S.L., Gasteiz On, Langtegi Batuak, Gurutze Gorria, Suspergintza, AVIFES eta EDE Fundazioa. Egun, 43 enpresak osatzen dute komunitatea.

Jardunaldia Elkartegian egin zuten eta enpresetako ordezkariak euren jardunbide egokiak partekatu zituzten, baita lana eta

familia uztartzearen orainari eta etorkizunari buruzko gogoea ere. "Kontziliazioak benetan aurrera egingo du emakumeen kontua izateari uzten dienez eta partekatutako konpromiso bihurtzen denean. Eta bide horretan urrats bakoitzak berebiziko balioa dauka. Izan ere, kontziliazioagaz ados egotea ez da nahikoa; egitea, inertzia berrikustea, probatzea, neurtzea, zuzentzea... eta berriro ahalegina egitea beharrezkoak dira", adierazi du Xabier Legarreta sailburuordeak Elkartegian egingo ekitaldian.

"Aurrerapen nabarmenak" Tabirako kirolguneko lanetan

Igerileku estalia eta multikantxako aldagelak bota dituzte. Transformazio zentroa lekualdatzen dabilta

Ekaitz Herrera DURANGO

Tabirako kirol instalazioko lanak aurrera doaz. Iker Txertudi kirol zinegotziak jakinarazi duenez, lanek "aurrerapen nabarmenak" izan dituzte hasi eta lau astera. Txarto egondako egiturak bota dituzte dagoeneko: igerileku estalia eta multikantxako aldagelak. Bestetik, transformazio zentroa lekualdatzen dabilta egunotan, etorkizuneko instalazioek beharrezko hornidura elektrikoa izan dezaten. Iragazketa-gela berria lizitzatzeko prozesua azken fasean dago.



Lanak Tabiran. DURANGOKO UDALA

Durangoko Udalak Landakoko aldagela mistoa arautu du

Adierazi dutenez, "deserosotasun egoerak" sortu dira erabiltzaileen artean, "batez ere umeak dituzten familietan"

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak Landakoko kiroldegiko aldagela mistoa arautu du, herritarren kezak jaso ondoren. Orain arte, aldagela mistoa adin txikiak dituzten familiek, eskola taldeek eta norbanakoek erabili dute, baina eremu hori "askotariko kolektiboek" erabiltzen dutela ikusita eta "egoera deserosoak" sortzen zirela ikusita, udalak aldagela arautu du "erabiltzaile guztien erosotasuna bermatzeko". Hori horrela, honako irizpide hauek ezarri dituzte: eskola taldeek

lehenetasuna izango dute aldagela mistoa erabiltzeko alde aurretik erreserbatutako orduetan. Igeriketa ikastaroen orduetegi, familiek eta adin txikiak dituzten familiek, eskola taldeek eta norbanakoek erabili dute lehentasuna. Asteburuetan, familia giroa nagusi dela kontuan hartuta, familiek eta adin txikiak dituzten familiek dute lehentasuna, "pribatutasuna eta lasaitasuna" izan dezaten. Gainerako orduetan, aipaturiko lehentasunek eragirik ez duten ordu tarteetan, edozein erabiltzailek erabili ahal izango du aldagela mistoa.

Eguzki plakak ipiniko dituzte Platerueneko teiltuan

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak Plateruena Kultur Aterpeko teiltua berziztuko du. Batetik, asfalto oihala berziztuko dute, eta, bestetik, eguzki plakak ipiniko dituzte. Aurreikuspenen arabera, lanek hilabete bi iraungo dute eta 34.490 euroko aurrekontua izango dute.

Era berean, udalak zehaztu du eguzki plakak antzoki gainean ipintzea esku hartze zabalago baten zati dela. Izan ere, 2025 erdialdean 576 plaka ipini zituzten Landako Guneko sabaian. Halaber, Laubideta kalean antzeko proiektu bat egin gura dutela iragarri dute. Udalak beste proiektu bat du planifikazio fasean.

Aholku Sarearen topaketa, Zornotzan

laz, Aholku Sareak 2024an baino ia mila lagun gehiago artatu zituen; sareak norbanakoen eta profesionalen ia 30.000 kontsulta jaso zituen, guztira; 40 arretagune baino gehiago dituzte EAEn, horietariko bi eskualdean: Durangon eta Zornotzan

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Eusko Jaurlaritzaren Aholku Sareak atzeritarren erregularizazio administratiboari laguntzeko helburua du, besteak beste, eta euren zerbitzuak geroago eta gehiago erabiltzen direla erakutsi duten datuak azaldu dituzte Zornotzan egindako topaketan. Guztira, 40 arretagune dituzte zabalik Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta horietako arduradunak urtero egiten duten jardunaldietan batu ziren. Aurkezpen ekitaldian Nerea Melgosa Ongizate, Gazteria eta Erronka demografiko sailburuak, Rocio Calderon Irungo Aholku Sareko arduradunak eta Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak ere parte hartu zuten, besteak beste. Melgosak nabarmenduzuen iaz 2024an baino ia mila lagun gehiagok erabili zituztela Aholku Sarearen zerbitzuak; guztira, 15.459 lagunek jo zuten bertara aholku bila. "Igoera hori, seguru asko, atzeritarrei buruzko legeriaren iazko aldake-



Nerea Melgosa, aurkezpenean.

taren ondorio izango da. Errealitate horren aurrean, informazio zorrotza, orientazio eskuragarria eta laguntza profesionala emateko lan egin dugu Euskadin, administrazio ziurgabetasunean inor harrapatuta geratu ez dadin,

azaldu zuen. Ainhoa Salterain alkateak ere Aholku Sarearen "ixileko lana" azpimarratu zuen, eta Zornotzara "jatorri desberdinetatik" bizitzera etorritakoei eskerrak eman zizkien "herria aberasteagaitik".



Elkarretaratzeko irudi bat.

"Jarrera konplizeak apurtzera" deitu dute Zornotzan

Azken egunetako erasoen harira, elkarretaratzea egin dute Zornotzan, mugimendu feministak deituta

E. H. ZORNOTZA

Zornotzako mugimendu feministak "jarrera konplizeak apurtzera" deitu du herrian egindako elkarretaratzean. Azken asteetako eraso matxistei erantzuteko asmoz egin zuten deialdia. "Instituzio publikoak justizia bermatzeko gai ez badira, zer gertatzen zaigu? Guk argi dugu: komunitatea", esan zuten. Elkarretaratzean gogoratu zuten lau eraso matxistetarik lehenengoa Zorber rock jaialdian izan zela. Era berean, aurreko astelehenean gertatutako beste eraso baten berri eman zuten: "Gizon bat

haur eta adin txikikoen aurrean masturbatu zen Zelaieta parkean. Kasu horretan, erasoak jasan zutenek poliziari deitu zioten. Polizia azaldu eta erasotzailea identifikatu zuten. Baina ez zuten beste neurririk hartu. Eta ez zen ez erantzun irmorik ez babesik egon. Gaur egun, erasotzaile hori lasai dabil gure herrian paseatzen", azaldu zuten. Zornotzako mugimendu feministako kideek adierazi zuten "nazkatuta eta nekatuta" daudela, eta salatu zuten erasoak ez direla kasu isolatuak, "sistema heteropatriarkalaren ondorio" baino.

"Esandakoa betetzeko" eskatu diote Osakidetza, berriro ere

Berrizko pentsiodunak berriro batu dira anbulatorio parean, bertan hiru sendagile egotea eskatzeko



Astelehenean Berrizko anbulatorio aurrean egindako elkarretaratzea.

A. M. BERRIZ

Beste astelehen batez, euriagaz oraingo honetan, Berrizko pentsiodunak kalera irten dira. Azken urte bietan mobilizazio ugari egin dute, eta horietariko asko Osakidetza konpromiso bat hartzeko eskatzeko izan da. Asteon, zaparradaren gainetik 75 lagun batu zirela nabarmendu dute. "Euriak ez gaitu kikildu", eta datorren astelehenerako, otsailak 23, beste deialdi bat egin dute bertaratzeke. Ohikoa duten moduan, 12:30ean anbulatorio parean batuko dira berriro, osasun publikoaren alde. "Osakidetza agindutakoa bete barik jarraitzen du. Batzuetan hiru mediku egoten dira, baina ez da bermatzen beti hala izatea", ke-xatu dira. Pentsiodunek inguruko herrietan ere jarraitzen dute mobilizazioak egiten.

Lajwad elkartearen babesagaz, Oporrak Bakean martxan da

Elorrioko Udalak eta Lajwad elkarteak ume sahararrak etxeetan hartzera animatu dituzte elorriarrak

A. M. ELORRIO

Saharako hurrei uda Euskal Herrian pasatzeko aukera eman dien ekimena, Oporrak bakean, martxan da beste urte batez. Lajwad elkarteak eta Elorrioko Udalak ekimenera batzera animatu dituzte elorriarrak. "Ekimen honek helburu argia du; alde batetik, haur sahararrei osunari, elikadurari eta ongizate funtzionalari loturiko hobekuntzak eskaintzea; eta, bestetik, elkartasunaren, kulturartekotasunaren eta giza eskubideen aldeko kontzientzia soziala indartzea",

azaldu dute ohar baten bitartez. "Programaren bitartez, hurrek Saharako basamortuko bizi baldintza gogorak aldi baterako atzean utzi eta Euskal Herrian oporrak igarotzen dituzte", gehitu dute. Honenbestez, herritarrek ekimenera batzera animatu dituzte. "Saharako herriagazko elkartasun keinu hau funtsezkoa da, eta herritarren parte hartze aktiboari eskerrak da posible". Bestalde, Lajwad elkarteak familiei informazioa, laguntza eta akonpainamendua eskaintzen dietela gogoratu dute.

SCHMIDT

SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

ITXURA BERRIA,
ILUSIO BERRIA
ZATOZ BISITAN!

Schmidt-en eskutik
etxe osoa

BARRIZTU
BARNE DISEINUA

C.C. Eroski 48220 Abadiño · Tel. 946 526 195
Hartu hitz ordua www.home-design.schmidt



Hontza Museoak 2.217 bisitari jaso zituen iaz

Mañariko museoko arduradunek 2025aren balorazio "oso positiboa" egin dute. Bisitari kopuruaz gainera, ikerketa zientifikoa eta prestakuntza bultzatzeko hainbat erakunde eta unibertsitategaz dituen lankidetza-harremanak nabarmendu dituzte

Joseba Derteano MAÑARIA

Urte berrira begira lanean dabiltzan bitartean, Mañariko Hontza Museoako arduradunek iazko urtearen balantzea egin dute. 2025a "oso positiboa" izan zela adierazi dute ohar batean. Museoak 2.217 bisitari jaso zituen; horrela, 24.431 bisitara heldu dira 2014an berriro zabaldu zenetik hona.

Museoak "erreferentziazko espazio modura sendotzen" jarraitzen duela azpimarratu dute. Horren erakusgarri da 110 bisitak gidatu antolatu zituztela. "Museoak duen bokazio pedagogikoa indartu da, bereziki hezkuntza eremuan", esan dute.



Museoak 50.000 ale inguru gordetzen ditu, horietatik 48.183 informatizatuta. HONTZA

Bisitarien profila askotarikoa izan zen: %44 haurrak, %42 helduak, eta gainerakoa gazte eta adinekoen artean banatu zen. Jatorriari erreparatuta, bisitarien %91,6 Euskal Autonomia Erkidegokoak izan ziren; horien artean %76,9 Bizkaikoak, %9,6 Gipuzkoakoak eta %4,9 Arabakoak. Nazioarteko bisitarien presentzia ere azpimarratzekoa da.

Ikerketa bultzatuz

2025ean zehar, Hontza Museoak hainbat erakunde eta unibertsitategaz dituen lankidetza harremanak sendotzen jarraitu zuen, ikerketa zientifikoa eta prestakuntza bultzatzeko helburuagaz. Lankidetza horien emaitza izan ziren, adibidez, museoko funtsak oinarri hartuta garatutako ikerketa proiektuak, gradu eta master amaierako lanak, doktoretza ikerketak, eta baita ikasleen praktikaldien bitartez egindako jarduerak ere.

Erakusketa jarduerari dago-kionez, 'Tresnak eta Natura' aldi baterako erakusketa abiatu zuten, eta oraindino ikusgai dago, 2026ko irailera arte.

Mañarian amaitzeaz da Martxoak 8ko bazkariaren ematea

Emakumeen Nazioarteko Eguna ate joka dator eta egun horren harira hainbat ekintza prestatu dute Mañarian. Ekimenik gehienak aurreko egunean izango dira, martxoaren 7ko zapa-tuan. Egundorretako osagai bat bazkaria da eta bertan parte hartzeko izen ematea gaur amaitzen da, otsailak 20. Udaletxean egin daiteke hori, 20 euroan. Bazkarian parte hartuko dutenen artean alergiadunik badago, udal arduradunek jakinarazteko eskatu dute. Bestalde, menu begetarianoa gura izanez gero, izena ematerakoan zehazteko eskatu dute.

Martxoaren 7ko eguna trikitilariak girotutako poteoagaz hasiko dute, 12:30ean, plazatik. 14:00etan bazkariata batuko dira kultur etxean, eta ondoren bingoa egongo da. Amaitzeko, 18:30ean, karropoteoa hasiko da. Biharamunean, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, kartelada egongo da plazan, 13:00etan.

Atxondok BiziPuntu bat du bizikletak konpontzeko

Udaletxe aurrean dagoen azpiegitura berriak oinarritzko mantentze lanak egiteko aukera eskaintzen du



Asteon amaitu dituzte BiziPuntua kokatzeko lanak.

J.D. ATXONDO

Atxondok bizikletentzako BiziPuntu bat du aste honetatik aurrera, eta Aldundiak bultzatutako bizikleten zerbitzugune sarearen barruan sartu da. Azpiegitura berria udaletxearen ondoan ipini dute, bizikleta erabiltzaileentzat kokaleku eskuragarria, udalak ohar batean

azaldu duenez. BiziPuntuak bizikleten oinarritzko mantentze-lanak egiteko aukera eskaintzen du, hala nola gurpilak puzteko edo doikuntza txikiak egiteko, eta, gainera, Atxondokoak bizikletak garbitzeko ur-hartune bat ere badu. Udalak azpiegitura berrirako ur eta saneamendu loturak egin ditu.

Zahartzaroari eta zaintzari buruz hausnartzeko tailerrak Atxondon

Lehenengo saioa atzo izan zen eta bigarrena martitzenean izango da. Irati Mogollon soziologoak gidatuko du

J.D. ATXONDO

Irati Mogollon soziologoa *Cuidados y vejez: alternativas y vivienda colaborativa* izeneko tailerrak eskaintzen dabil Atxondon. Tailer bietatik lehenengoa atzo izan zen eta bigarrena datorren asteko martitzenean izango da, 18:00etatik 20:00etara, eskolako eraikin zaharrean.

Tailerrak iaz eskaintako berbaldiaren jarraipenak dira, baina euren parte hartzeko ez dago aurretik hitzaldira joan behar izanik, Berdintasun Kontseilu Herriarreko antolatzaileek zehaztu dutenez. Otsailaren 24ko tailerra gaztelaniaz izango da eta ez dago izena eman beharrik. Herriar guztiei zabalik dago, gizon zein emakume.

Zaintza ereduak aztergai

Tailerren helburua, orokorrean, honako hau da: zaintzari eta

zahartzaroari buruz berba egiten eta hausnartzen jarraitzea ahalik eta jende gehien artean. Martitzeneko tailerrean inguruko zaintza-arkitekturak aztertuko dituzte, zaintzarako sistema publiko, pribatu eta komunitarioen eraikuntzari buruzko eztabaidari ekiteko. Horrez gainera, beste herri, hiri eta herrialde batzuetan zaintzaren eta zahartzaroaren inguruan garatu diren estrategiak partekatuko dituzte eta euren gogoa egingo dute ondorioak ateratzeko.

Atzoko tailerrean, *Ni eta nire zaintzak. Argi eta garbi. Zaintza eta ahalduzko izenekoan*, iazko berbaldiaren aipatutako kontzeptuak eta problematikak landu zituzten bertaratutakoan artean. Ondoren, zaintza-estrategia indibidual eta kolektiboe-tan sakondu zuten.



Asteon hasi dituzte lanak.

Izurtzako Udala Arbizoleako bide bat konpontzen hasi da

Izurtzako Udala Arbizolea industrialdeko herri bide bat konpontzen hasi da aste honetan. Gune batean, asfalto gora eginda zegoen eta horixe konpontzea da helburua. Lasuen enpresak eramango ditu aurrera lanak. Aste honetan, kalte-tutako materiala kendu eta material berriz betetzea da asmoa. Aurrerago asfaltatze lanak egingo dituzte.

anboto

INAUTERIE TAKO

ARGAZKI LEHIAKETA

EMAN
ZURE
BOTOA

OTSAILAREN
25a BAINO
LEHEN



Okm: batzen gaituen distantzia


anbotokide



**OTSAILEKO
ZOKKETAK**



Arriolan, (Elorrio) La Senior de Larua
"You have an inner world, so what?"
Dantza emanaldirako 2 sarrera. Otsailak 27.



Zelai Hotela (Zumaia): Talaso saioa
eta gosaria barne duen birentzako bonua.



Xiberu tabernan (Zornotza)
bi gosari bikoitz.

**EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOKKETETAN!**



Gozategi, Skabidean eta Hofe, besteak beste, Gazte Topagunean

Topagunea apirilaren 2tik 5era egingo dute Abadiñon. Bonuak eskuragarri ipini dituzte dagoeneko



Elorrion egindako Topaguneko argazki bat. @ERNAI

Maialen Zuazubiskar **ABADIÑO**
Apirilaren 2tik 5era Abadiñon egingo duen Gazte Topaguneko kartelaren berri eman du aste honetan Ernai Gazte Antolakundeak. Oraindino talderen bat iragartzeko falta den arren, honako hauek igoko dira Abadiñoko oholtzara: Gozategi, Skabidean, Hofe, Nafarroa 1512, Maruxak, Arene 6, Perlata, Kiliki, Ezpalak, Streetwise, Bengo, Fitoskins, Etxepe, Belako, Tapia eta Leturia, La Txama, Sua, Sedientos de Cumbia, Odei, Siwana-ba B2B La Fulana, DJ Reimy, Bassajaun Sound System, Kuku&Kene, DJ Bull, Xaukena Xauk eta BKTS.

Bestalde, Gazte Antolakunde-k kideek jakinarazi dute Topagunerako bonua erosteko aukera dagoela dagoeneko.

M.Z. ABADIÑO

2025eko aurrekontu parte hartzaileetan, pilak eta ohiko zaborrontzietan bota ezin daitezkeen material txikiak jasotzeko edukiontzi gehiago ipintzea lehenetsi zuten abadiñarrek, eta, horri erantzunez, udalak lau minigarbigune ipini ditu. Traña plazan, Trañabarren kalean, Ferialeku plazan eta Kamiñoepa kalean ipini dituzte puntu hauek. "Era honetara, modu eroso eta arduratsuan birziklatzea bultzatzen da", azaldu du udalak.

Lau minigarbigune Abadiñon




Ferialeku plazako gunea.

Lilatoirako emakumeen taldea osatzen dabilta Mallabian

Martxoaren 1ean Donostiara joateko autobusa ipiniko dute Mallabian. Horretarako, izena eman beharko da

M.Z. MALLABIA

Mallabian autobus zerbitzua ipini dute Donostian martxoaren 1ean egingo den 36. Emakumezkoen Lasterketa Herrikoira joateko. Udalak jakinarazi duenez, udal-erriko emakumeen taldea osatu gura dute, eta, hori errazteko, autobus zerbitzua ipiniko dute. Autobusa 8:30ean irtengo da herri-erriko, eta itzulera 18:30ean izango da. Lilatoira autobusean joateko, ezinbestekoa izango da izena ematea. Otsailaren 24a baino lehenago egin beharko da hori, Mallabiko Udalean edo Kultur Etxean.



2025eko argazkia. @LILATONDONOSTIA

Sahararentzat elikagai bilketa Mallabian

M.Z. MALLABIA

Saharako errefuxiatuei laguntza ematea lehentasun izaten jarraitzen du, eta, horregaitik, martxan ipini dute oinarritzko elikagaiak hornitzeko dohaintza kanpaina, errefuxiatuen kanpamentuetan gehien behar dutenentzat. Kanpainaren helburua errefuxiatuak dituzten premiarik larrienak asetzea da. Dohaintzak 6, 9 edo 15 eurokoak izan daitezke, eta elikagaiak erosteko egingo dira.

Modu bi daude dohaintzak egiteko; bizum bidez 01955 kodea erabilita, edo, bestela, ES90 3035 0129 11 1290034483 kontu zenbakira transferentzia eginda.

Iurretako Kimuak elkarteak prest du udalekuen eskaintza

Finko bat eta ibiltari bi eskainiko dituzte, 8-17 urteko gazteentzat. Martxoaren 2tik 5era eman daiteke izena

A. Basauri IURRETA

Iurretako Kimuak aisialdi elkarteak prest dauka udara begirako udalekuen eskaintza. Aurtan ere, hiru udaleku eskainiko dituzte, adinaren arabera antolatuta. Udaleku ibiltari bi eta finko bat egingo dituzte, uztailan. Zortzi urtetik hamazazpi urtera bitarteko neska-mutiei zuzendutako eskaintza da. Martxoaren 2tik 5era eman daiteke izena kimuak.wordpress.com atarian. Behin-behineko zerrenda martxoaren 6an jakinaraziko dute.

Gaztetxoek Sarrian (Zuia, Araba) egingo dute egonaldia, uztailaren 11tik 17ra bitartean. Askotariko ekintzekin antolatutako udaleku finkoa da eta 30 lagunentzako lekua egongo da. Mendi ibilbideekin eta igerilekuetara irteerak eginda osatu dute 2016tik 2018ra bitartean jaiotako gaztetxoentzako eskaintza.

Kimuak elkarteak antolatutako udaleku ibiltariak Nafarroan izango dira. Biak Lesakatik abiatuko dira. Ibiltari Txikiak (2012-2015 urteetan jaiotakoak) Amairrainoko bidea egingo du,



Kimuak elkarteak antolatutako udalekuetako irudi bat. KIMUAK

uztailaren 1etik 11ra. Ibiltari Luzea (2009-2011 urteetan jaiotakoak) Elizondorainoko bidea, ekainaren 29tik uztailaren 11ra izango da. Etaparik etapa, gazteek Euskal Herriko hainbat txoko eta herri ezagutzeko aukera izan-

go dute, eta askotariko tailer eta ekintzetan aritzeko tarteak hartuko dute. 60 lagunentzako lekua gorde da bietan. Informazio gehiagorako, kimuak.a.e@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke.

Paul Urkijoren 'Irati' pelikula Zaldibarko liburutegi zaharrean

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko Berbalagunek beste egitasmo bat antolatu du. Datorren asteko zapatuan, otsailak 28, *Irati* filma proiektatuko dute liburutegi zaharrean. Ekitaldia 17:00etan izango da. Paul Urkijoren film arrakastatsua VII. mendeko euskal Pirinioetan girotuta dago eta historia, fantasia, abenturak eta mitologia ditu oinarri. Eneko Sagardoy aktore durangarra da protagonistetarikoa. Sagardoyk Eneko Aritza Iruñeko lehenengo erregearen rola jokatzen du bertan. Pelikula ikusteko, izena eman behar da aldeaz aurretik, 688 722 989 Whatsapp zenbakian.

Otxandion pasarela berria ipini dute Antonbentako zubian

Udalak ia 49.000 euro erabili ditu oinezkoentzako mugikortasuna erraztu gura duen pasabidea ipintzeko



Zubiak herrigunea eta Mainondo kirolgunea lotzen ditu. OTXANDIOKO UDALA

A.B. OTXANDIO

Otxandioko herrigunea eta Mainondo kirolgunea berria lotzen dituen Antonbentako zubiaren alboan oinezkoentzako pasarela berria ipini dute asteon. Udalak herritarren segurtasuna hobetzeko eta oinezkoen mugikortasuna errazteko helburuagaz gauzatu ditu lan horiek. Pasarela berria ipinita, oinezkoek espazio propioa dute bide tarte horretan, trafiko zirkulazioagaz bateragarria dena, udal ordezkariak azaldu dutenez.

Otxandioko Udalak 49.000 euro inguru erabili ditu oinezkoentzako pasabide berria ipintzeko. Herritarrek egindako eskaerari erantzuteko eraman ditu udalak lan hauek aurrera, irisgarritasunaren alde egiteko pauso garrantzitsua dela iritzita.

'Aitatxo' dokumentala Garaiko Elizabarrin proiektatuko dute

Martxoaren 1ean emango dute, 18:00etan. Bost euroko sarrera ipini dute. Trumoittek antolatu du ekitaldia

Ekaitz Herrera GARAI

Trumoittek *Aitatxo* dokumentala proiektatuko du Elizabarrin, martxoaren 1ean. Dokumentalak Mallabiko aita biren dolua aztertzen du, Anakotz Lasarterena eta Fernando Alonsorena. Lehenengoak seme jaioberri bi galdu zituen, eta bigarrenari 32 urteko alaba hil zitzaion. "Seme edo alaba baten heriotzaren aurrean aitok ere atera behar dugu mina", adierazi zuten biek dokumentala estreinatu atarian. Saioa 17:00etan izango da. Sarrera bost euroan ipini dute.



Anakotz Lasarte, filmeko zuzendaria.

PABILIOIA SALGAI
Iurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com

Lehiaketa bozketa fasean

Anbotok antolatzen duen Inauterietako argazki lehiaketa bozketa fasean sartu da dagoeneko. Eskualdeko herritarrek hainbat argazki aurkeztu dute aurtengo lehiaketara. Orain, lehiaketa azken fasean sartu da. Herritarrek martxoaren 25era bitartean izango dute aukera euren iritziz argazkirik onena denari botoa emateko.



SIMP ATIKUEK.

DURANGALDEA ASTEON

Durango Kantari otsailaren 22an Merkatuan

DURANGO Domeka honetan, otsailak 22, Durango Kantari ekimenaren beste topaketa bat egingo dute. Hitzordua 12:00etan izango da, Merkatuan, eta aurten Bentazarreko Mutiko Alaiek girotuko dute topaketa. Durangoko Udalak bertan parte hartzeko deia egin die herritarrei.



Hiru pertsona atxilotu dituzte Durangon

DURANGO Ertzaintzak hiru pertsona atxilotu zituen martitzenean Durangon, Ermuan lapurreta egin dutela egotzita. Atxiloketak Ezkurdi-kon tren geltokian egin zituzten. Polizia agenteek tren zerbitzua eten behar izan zuten. Segurtasun Sailak hedabide honi jakinarazi zionez, hiru atxilotuek "indarrez eta bortizki" egin zioten lapurreta Ermuan herritar bati, kalean. Ustezko lapurrek trena hartu zuten gero, ihes egiteko asmoz, baina Ertzaintzak atxilotu egin zituen Durangon.



Raimundo el Canastero taldea 2024ko festibalean. 40 MINUTU ROCK

Ruperrek emango dio hasiera asteburu luzeari

DURANGO 40 Minutu Rocken hamargarren urteurrena ospatuko dute asteburu honetan. Gaur emango diote hasiera asteburu luzeari, ekitaldiagaz eta Ruper Ordorikaren kontzertuagaz. Bestalde, jaialdia bihar izango da. 11:00etan hasiko da, Naxkerren kontzertuagaz. Ekitaldi nagusia 19:50ean izango da eta azken kontzertua 01:05ean izango da, Kilikirena.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN
CARLOS GARCÍA
PP

Durangobus-ekin aurrekontua egongo da, bestela ez

Aurtengo aurrekontuaren aldeko botoa eman ahal izateko, Durangoko Udalari ezarri diodan baldintza da diru-hornidura izatea Durangobus edo Durangoko udal autobus zerbitzua ezartzeko.

Hau Durangoko gobernu taldearekin hartu nuen konpromisoa da, eta beste konpromiso batzuk bete baditu ere, hau oraindik ez du bete.

2023tik urtero nabil proposamen hau defendatzen eta diru-partidak eranstean, eta duen garrantzia kontuan hartuta, 2026an martxan hasi behar luke, udako autobus zerbitzu gisa, Tabirako igerilekuen irekierarekin batera. Proiektu pilotu hau arrakastatsua bada, zerbitzua urte osokoa izatera zabalduko da 2027an, eta azkenik, 2028an, Abadiñoko eta Iurretako udalekin akordio bat lortzea litzateke helburua, zerbitzua hiru udalek partekatzeko. Foru Aldundiaren laguntzarekin izango litzateke, zeinak dagoeneko bere oniritzia eman duen.

Beraz, Durangoko udal autobus proiekturako finantzaketa lortzearen alde egingo dut, hilabete gutxiren buruan gure bizilagun guztientzat, batez ere adinekoentzat, errealitate bihur dadin.

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



SEGIDARI JARRAITU



ITZALAK

Zein itzal dagokio irudi bakoitzari?




ZENBATU

Irudi bakoitzetik zenbat aurkitu ditzakezu?



SEGIDA

Segidari jarraitu



Aritz Maldonado DURANGO

Testu eta argazkien bitartez, Txelu Angoitia argazkilari durangarrak 1940an hasi eta 2025era arteko bidaia bat kontatzen du. Angoitia Walter Benjamin filosofo alemaniarren garai nahasi batean hasitako bidaiaaren arrastoari jarraitu dio, eta Mediterraneoko argia eta gizakiaren alderik ilunena batzen dituen *El hoy difunto Benjamin Walter. Un viaje a Portbou* kronika kaleratu du Noctis argitaletxeagaz.

Zergaitik Walter Benjamin?

Gauza askori buruz idatzi delako izan dut Benjaminen berri, baita argazkilaritzari buruz ere. Hortaz, bere irudiak beti sortu dit interesa. Zelan hil zen ere jakin nuen, eta, Girona aldetik oporretan nengoela, autoz Portboura joan nintzen. Ingurua eta bere monumentua ikusterakoan, maitemindu egin nintzen; ez bakarrik Walter Benjaminen irudiaz, baita inguru hartaz ere. Apartamentu bat hartu, eta hamar egunean izan nintzen inguruetan. Antonio Machado ere han inguruan hil zen. Hura ere bidaia bat egiten zebilen, urtebeteko aldeagaz. Handik hurbil dago Argeles-sur-mer kontzentrazio esparrua. Horren ondoren, gehiago irakurtzen hasi nintzen, eta baita idazten ere.

Liburuak bidaia-koaderno itxura du.

Neure denbora hartu behar izan dut forma hori emateko, informazio eta argazki asko neukan eta. Azkenean, gertatutako bizi izan nuen moduan kontatzea erabaki nuen, irtenbiderik logikoena iruditu zitzaidan eta. Eta horrela okurritu zitzaidan bidaia-koadernoarena. Marsellan hasten den bidaia bat da, Benjaminena legez, eta Lisboan amaitzen da. Eta apurka-apurka joan naiz idazten. Baina asko kostatu zait. Nik, gainera, nahiko astiro idazten dut, errespetu handia ematen dit. Baina argi ikusten nuen argazkiekin bakarrik ezin nuela kontatu nik gura nuen istorioa.

Erosoago sentitzen zinen horrela?

Erosoago baino gehiago, hala izatea behar nuen. Esango nuke testurik barik ez zela ulertuko. Bestalde, aipu mordoa ere sartu dut, berak ere horrela idazten zuelako. Uste dut horrek aberastu egiten duela liburuak. Liburuaren ardatza nire bidaia da; zati hori irakurri dezakezu bakarrik, edota argazki eta aipuekin beste

"Benjamin Walterren irudiaz eta Gironaz maitemindu egin nintzen"

TXELU ANGOITIA ARGAZKILARIA

ARGAZKILARITZA Txelu Angoitia argazkilariak Walter Benjamin filosofo alemaniarren bizitza eta heriotza ardatz hartzen dituen bidaia kontatu du bere liburu berrian



Angoitia, liburuaren ale bat eskuetan duela.

bat irakurri. Irakurtzeko maila desberdinak daude.

Aspaldiko bidaiaaren trazan hasten da, baina gaur egungoa ere bada, aldi berean.

"LEHENENGO EDIZIOA IA AMAITU DUT. PENTSATUKO DUT BIGARRENA ATERA EDO EZ"

Bai, liburuan faxismo aurreko garaia agertzen dira, Walter Benjaminek berak ondo ezagutu zituenak, otsoari belarriak ikusi eta Frantziara joan zen eta. Hannah Arendt-en laguna ere izan zen, eta bera ere agertzen da liburuan. Garai hartako hainbat gauza irakurri dut, eta askotan hotzikarak sentitzen nituen, 'egunkaria irakurtzen ari naizela dirudi!'. Fase batzuk betetzen joan zirela ikusi nuen, eta badakigu gero zelan amaitu

zen dena: gerra, faxismoa. Beharbada, historia ez da berdin-berdin errepikatzen. Esango nuke denok irakurri beharko genukeela nazismoak zelan egin zuen gora garai hartako Alemanian, zer ez egin jakiteko. Alde horretatik, gogoeta hau egiten dut: 'Garai hartan egin zuten berdina egiten gabilta. Zelan da posible?'. Garai hartan legez, beharbada ez dugu jakingo zelan desaktibatu, zer ez den egin behar. Baliteke hori ezinezkoa izatea,

ziklo historiko bat da eta ez dago beste zereginik, gainditu arte borrokatzea baino ez. Baina berdin jokatzu gero, berdina gertatuko da, hori argi dago. Idazterakoan, sentimendu horiek pizten zaizkit. Hausnartu egin beharko genuke.

Sentimendu horiek idazketa baldintzatu dizute?

Ez dakit 'eragin' berba egokia den kasu honetan, nik neuk bilatu dudana tonua ere izan delako. **Gaur egun horrelakoak kaleratzea erresistentzia ekintza dira?**

Ba, seguru asko bai. Asko esatea da beharbada, baina gauza ederrak sortzen ahalegintzen jarraitu behar dugu. Horregaz bakarrik ez goaz inora, hori badakit, ez naiz inozoa. Musikak eta kulturak ez dute mundua salbatuko, baina hobetu bai. Gizakiok egiten dugun onenetarikoa dira. Horrez gainera, baten batek liburuagaz gozatzen badu, ongi etorria izan dadila. Egia esanda, zeozer sortzeko beharra ere banuen, eta nik jasotakoa gainerakoei kontatzeko ere bai.

Liburuak mimoz eginda dago.

Bai, lan mordoa ekarri dit, baina gustura geratu naiz. Pentsa, ale bakoitza banan-banan egingakoa da. Ez da etekin ekonomikoa ateratzeko modurik onena, baina niri horrela irteten zaizkit gauzak.

Zuk ere saltzen dituzu.

Bai, lehenengo edizioa ia amaitu dut. Pentsatuko dut bigarren atera edo ez. Ez da erraza, sekulako lana hartu dut eta. Noctis Photo argitaletxeagaz kaleratu dut, argazkilari kolektiboagaz. Interesa duenak photosol@gmail.com helbide elektronikora idatzi dezake eskaerak egiteko. Liburuak 25 euroan dago salgai, bidalketa gastuak aparte.

"NEURE DENBORA HARTU BEHAR IZAN DUT ISTORIOARI BIDAIA-KOADERNO FORMA EMATEKO"

"AIPU MORDOA SARTU DUT, WALTER BENJAMINEK BERAK ERE HORRELA IDAZTEN ZUELAKO"

Galder Izagirrek 'Esc' aurkeztuko du Ateneon

MUSIKA Bateria-jotzaile gipuzkoarrak laukote formatuan emango du kontzertua; besteak beste, Onintze Fernandez zornotzarra alboan duela egingo du emanaldia; Ateneoko ateak 22:00etan zabalduko dituzte, eta zuzeneko 22:30ean hasiko da

A. M. ELORRIO

Urte bi baino gehiago dira Galder Izagirre musikari irundarrak bakarkako ibilbideari ekin ziola. *Esc* diskoa (Forbidden Colours) 2023ko udazkenean kaleratu eta gero, zuzenean aurkezten dabil. Izagirre Dut, Berri Txarrak eta Kuraia taldeetan aritzeagaitik da ezaguna, batez ere. Dena dela, beste era bateko bide bati ekin zion bakarkako proiektuagaz; rock doinuak guztiz alboratu barrik, *kraut*-ean eta doinu elektronikoetan sakondu du disko hone-tan. Bide beretik jo dute urrian kaleratu zuten *Talka* abestian. Izagirrek luxuzko taldekideak ditu zuzenekoetarako: Onintze Garcia zornotzarrek gitarraren sokak astinduko ditu, Hodei Estebanek baxua joko du, eta Haize Karrikaburuk teklatura; Izagirrek berak bateria joko du, abesteaz gainera. Elorrion ez ezik, Gerni-kan, Gasteizen eta Elizondon ere joko dituzte kontzertuak apirile-ra bitartean iraungo duen biran.



Galder Izagirre.

Elorrioko AteneON zikloaren barruan izango da Galder Izagirreren kontzertua. Aurretik, -Gailu, Ateri, Full Cab eta Dena taldeek ere jo dute aurtengo denboraldian. Aretoko ateak, ohikoa den moduan,

22:00etan zabalduko dituzte, eta sarrera momentuan bertan erosi ahal izango da, zortzi euroan (edari bat doan). Kontzertuaren ondoren, etxeko musika-jartzaileek gunea girotuko dute.



Nacho Diago. NACHO DIAGO

Nacho Diago magoaren argiak eta itzalak San Agustinen

MAGIA Argiaren bitartez, hausnarketa eragitea gura du Diagok; zapatuan izango da emanaldia, 21:00etan

A. M. DURANGO

Nacho Diago magoa Bizkai aldetik ibiliko da asteburuan. Hain zuzen ere, valentziarrak Sopela eta Durango bisitatuko ditu bere azken lanagaz: *aLUZina*. Argi eta itzalekin jolastuz, harritzeko gaitasunari buruz hausnartzera gonbidatuko ditu ikusleak. "Mago onak ikuslearen barruak mugitu eta txundidura hori sentiarazten diotenak dira", esan du Diagok bere lanari buruz. "Gizarteak argiagaz izan duen hartu-eman da lanaren haria, baita honek eragiten duen itzala ere". Diagok itzalen antzerkia,

umorea eta poesia uztarzen ditu. Durangoko emanaldia zapatuan izango da, 19:00etan.

Diagok ibilbide luzea darama ikuskizunaren munduan; izan ere, magia egin ez ezik zirkuan eta telebista saioetan ere parte hartu du. 2005ean XXVII Congreso Mágico topaguneko lehengo saria irabazita Espainiako txapelkun geratu zen. Bere lanetan, ohiko objektuekin esperimentatuta, gutxien espero duen toki edo sentsazioetara eramaten du ikuslea. 2022an FESMAk Atmosfera Mágica saria eman zion.



GAI LIBREAN

LIBE MIMENZA CASTILLO EHU-KO IRAKASLE IKERTZAILEA

Zarraparra

Autobusean bi ilara aurrerago doanaren aharrausiekin hasi da dena. Ahoa zazpi aldiz zabaldu du 15 minutuko bidean. Ozen eta hasperen mota ezberdinez lagunduta —irunsi nahiko balu bezala munduarekiko goizeroko dezepzioa, ahokada bakoitzean dosia jaitsiz—. *Ai, maitia! Ai, bizitza!*

Lantokiko sarrerara heltzen den bide alboko dekorazio berdea moztan ari dira bi gizon, ezel hostodun forma borobileko hesien mantentze-lanetan —esanez legez izadiari, "Ez zaitez gure bidera atera, zaude hor guk nahi modura"—. Brrrr brrrr brrrr brrrrrrrrrrrr. Bulegoko atearen bestaldetik ere entzungo dituzu makinak beste pare bat orduz.

Su alarma testatzeko eguna dela esanez datoz hamai-ke-takoaren aurretik. Ze zarraparra dabil gaur? Pasillo jendez bete eta aztoratuak ez du erantzunik. Komunean hartu duzu babes —antzean ote daiteke barnean sutzen zaigun su bakoitza? Nola ematen zaio su suari?—. Ea

"TABERNAKO KAFE ETA PINTXO BATEN OASI BILA ABIATZEA IZANGO DA ONENA. ABRIGOA, ATERKINA ETA "GERO ARTE!"

nor den hemen zentzuzko ezer idazteko gai!

Tabernako kafe eta pintxo baten oasi bila abiatzea izango da onena. Abrigoa, aterkina eta "Gero arte!". Bakerik ez. Ilusioa azukre poltsa zabaldu aurretik diluitu da: sirena. Zerbait potoloa izan dela jakiteko lain entzun duzu —larritasun batzuek dena hartzen dute—. Anbulantzia hotsa tortilla eskatzetik azken ogi apurre-taraino, eta platera barrara itzultzean ere oraindik han.

Ordenagailura bueltan trastearen haizagailua ere batu da kirrikara —zeren seinale da distortsio hau dena?—. Lankidea listua irensten ere aditzen duzu —tragatu ezin direnen markak nolakoak ote dira farin-gean?—.

Eta... dena isiltzean zer? Kiroldegi publikoan zapati-lak jantzi orduko play —*Putas amak*, zintan korrika eusteko anfetamina—. *Euria ari du kanpoan, sutan sabela*. Egun batzuek zarata handiegia dute. *Patuari fuck you egitera, hemen gera...*

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 20

DURANGO Erakusketa
'Piranesi. Erroma amestua' (Giovanni Battista Piranesi).
Arte eta Historia Museoan, apirilaren 26ra bitartean.

DURANGO Kontzertua
Ruper Ordorika.
Plateruenan, 21:00etan.

DURANGO Erakusketa
Angel de la Torre artistaren lanak.
Ezkurdi aretoan, marxoaren 1era arte.

ELORRIO Erakusketa
'Estelak'.
Iturri kultur etxean, otsailaren 27ra arte.

IURRETA Antzerkia
'Zaintzaren dantza' (Eidade).
Ibarretxe kultur etxean, 18:00etan.

ZORNOTZA Erakusketa
'Gazako garrasia' (Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarteak).
Zelaieta zentroan, otsailaren 28ra arte.

ZORNOTZA Antzerkia
'Nor naizen baneki' (Artedrama&Axut!).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZALDIBAR Erakusketa
'Yung Urkiolamendi' (Jone Ertzilla)
Xerra espazioan, maiatzaren 31ra arte.

ZAPATUA 21

BERRIZ Antzerkia
'Nor naizen baneki' (Artedrama&Axut!).
Kultur Etxean, 19:00etan.

DURANGO Antzerkia
'aLUZina' (Nacho Diago).
San Agustin kulturgunean, 19:00etan.

DURANGO Dantza
Dantzaro: Lorratz taldea.
Andra Mariko elizpean (19:00-21:00).

DURANGO 40 Minutu Rock
Naxker + Nafarroa 1512 + Les Testarudres + Zeker + Ezezez Marte Lasarte + EH Sukarra + Zea Mays + Brigade Loco + Neoma + Non Servium + Merina Gris + Kiliki.
Landako Gunean (10:00-02:00). Ekitaldi nagusia, 19:50ean.

DURANGO 40 Minutu Rock
Chicabeat & Rocky Violencia + Labar + Matah + Adur + Sembrando Kaos + DJ Pibikens + Kene.mp3
Plateruenan, 13:00ean hasita.

IURRETA Bizikleta irteera
Karabietara irteera. Txirrindulari elkarteak.
Iurretan, 09:30ean.

ZALDIBAR Ipuinak
'Liburu magikoen etxea'.
Liburutegian, 17:00etan.

ZORNOTZA Txapelketa
Amore Open, Europako I. Speedcubing Txapelketa.
Zelaieta frontoian, otsailaren 21ean eta 22an (10:00-20:00).

DOMEKA 22

DURANGO Musika
Durango Kantari.
Merkatu plaza berrian (12:00-13:00).

ASTELEHENA 23

MAÑARIA Ipuinak
'Zorte txarreko otsoak' (Maite Franko ipuin kontalaria).
Udal liburutegian, 18:00etan.

MARTITZENA 24

ZORNOTZA Ipuinak
'Emakume paregabeak' (Sorgiña Txirulina) 4-8 urteko umeentzat.
Liburutegian, 18:30ean.

EGUAZTENA 25

BERRIZ Berbaldia
'Haur eta gazteen transexualitatea. Ez da nire gorputza, zure begirada da' (Hizlaria: Bea Sever sexologoa eta Naizen elkarteko familien testigantzak).
Nagusien Zentroan, 17:30ean.

OTXANDIO Berbaldia
'Iktus ondorengo bizitza (a)normala' (Hizlaria: Iñigo Uriarte. Iktusa gainditu zuen eta gaur egun iktusaren eta bizi ohitura osasuntsuen inguruko dibulgazioan dihardu).
Kultur etxean, 18:00etan.

EGUENA 26

ABADIÑO Berbaldia
'Aurretiazko borondateak' (Hizlaria: Iñaki Intxausti).
Txanporta kultur etxean, 17:30ean.

ZORNOTZA BERBALDIA
'Mujeres en la edad media' (Hizlaria: Isabel Mellén historialaria).
Zelaieta zentroko auditoriumean, 18:30ean.

BARIKUA 27

BERRIZ Kontzertua
Slow times.
Aledi tabernan, 19:30ean.

DURANGO Kontzertua
Olinda.
Otamotzena auzogunea, 19:00etan.

ELORRIO Dantza
'You have an inner world and so what?' (Larrua Poiektuaren La senior konpainia).
Arriola antzokian, 20:00etan.

IURRETA Ipuinak
'Kamaleoiaren azala' (Odei Arregi ipuin kontalaria). Hiru urtetik gorako umeentzat (3-5 urtekoak heldu batek lagunduta).
Herri bibliotekan, 18:00etan.

IURRETA Ipuinak
'Camino de tierra' (Paula Carballera-Galizia) ahozko narrazioa helduentzat.
Herri bibliotekan, 19:00etan.

ZORNOTZA Antzerkia
'Lo peor que le puede pasar a un niño' (Ekoma Teatro).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZINEMA

BERRIZ KULTUR ETXEA

Hamnet
Domeka 22: 19:00.



DURANGO ZUGAZA ZINEMA

Balandrau, viento salvaje
Barikua 20: 18:00, 20:30.
Zapateria 21: 19:00, 21:30.
Domeka 22: 19:30.
Astelarena 23: 18:00, 20:15.
Martitzena 24: 18:00, 20:15.
Eguaztena 25: 19:00.

Greenland 2
Barikua 20: 18:00, 20:30.
Zapateria 21: 19:00, 21:30.
Domeka 22: 19:30.
Astelarena 23: 18:00, 20:15.
Martitzena 24: 18:00, 20:15.
Eguaztena 25: 19:00.

La Boda
Barikua 20: 18:00.
Zapateria 21: 16:30, 21:30.
Domeka 22: 17:15.
Astelarena 23: 20:15.
Martitzena 24: 20:15.
Eguaztena 25: 19:00.

Cumbres borrascosas
Barikua 20: 20:30.
Zapateria 21: 18:45.
Domeka 22: 19:30.
Astelarena 23: 17:45.
Martitzena 24: 17:45.

Goat, como cabras
Zapateria 21: 16:30.
Domeka 22: 17:00.

Evolution (euskaraz)
Zapateria 21: 16:45.
Domeka 22: 17:15.

ELORRIO ARRIOLA ANTZOKIA

Hamnet
Zapateria 21: 20:00.
Domeka 22: 20:00.
Astelarena 23: 20:00.

Oilaskoerbi eta marmotaren sekretua
Domeka 22: 17:00.

ZORNOTZA ZORNOTZA ARETOA

Tres Adioses
Zapateria 21: 20:00.
Domeka 22: 20:00.
Astelarena 23: 20:15.

Evolution
Zapateria 21: 17:00.
Domeka 22: 17:00.

Mamifera
Martitzena 24: 19:00.

BERRIZ Antzerkia
Markeliñek *Hodei guztien gainetik* obra taularatuko du Berrizen. Obra hau urtarrean estreinatu zuten eta gurasoen eta seme-alaben arteko hartu-emana kontatzen du; edo, hobeto esanda, hartu-eman eza. Adin guztiei zuzenduriko lana da.
Otsailaren 22, domeka, 12:30ean, Kultur Etxean.



MARKELINE



Laida Alzola, lurretan, taldeko elastikoagaz.



Aurten Mallorcako Itzulian ibili da, besteak beste. EULEN-AMENABAR

Joseba Derteano IURRETA

Laida Alzolak (Iurreta, 2007) hainbat emaitza azpimarragarri lortu zuen iaz Mirat Team-egaz. Denen gainetik, 19 urtez azpiko Portugalgo Voltan lortutakoak daude: garaipen bat, podium bat eta laugarren postu bat, hiru eguneko itzulian. Horri Errenteriako eta Etxarri-Aranatzeko podiumak gehitu behar zaizkio. Aurten, eliterako saltoa eman du Eulen-Amenabar taldeagaz, eta mundu berri bat zabaldu zaio.

Zelakoa izan da 23 urtez azpiko mailako debuta?

Handira jotzea lakoa izan zen. Mallorcako Itzulian debutatu nuen, UCI mailako lasterketan eta profesionalez inguratuta. Imajinatu! Neguan Calpe inguruan (Valentzia) entrenatzen ibili nintzen. Han kilometro asko pilatu nuen, egunero entrenatuta. Beraz, beldurrik barik joan nintzen Mallorcara, baina, hori bai, errespetu handiz. Zoritzarrez, lehenengo etapako 20. kilometroan jausi egin nintzen. Pena da, baina, tira, egoerari buelta eman eta lasterketa amaitzea lortu nuen; gustura nago egindako lanagaz, eman nezakeen dena eman nuen eta.

Zertan igarri duzu aldea iaztik hona?

Beste mundu bat da. 30 kilometro orduko batez bestekora ohituta nengoen eta Mallorcan 40

"Durangoko klasikoa ondo prestatzeaz tematuta nabil"

LAIDA ALZOLA TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA 18 urteagaz, UCI mailako itzuli batean debutatu du. Durangoko klasikoan parte hartzeak ilusio berezia egiten dio. Proba honi estimu berezia dio umetatik

kilometro ordukotik gora ibili ginen. Beraz, sekulako jauzia dago eta ez du zerikusirik ezagutzen nuenagaz. Baina erronka berri hau asko gustatzen zait. Lehen, denok elkar ezagutzen genuen, proba osoan elkar zaintzen egoten ginen, eta helmugara heldu eta "ez dut dena eman" esaten nuen. Orain leher eginda heltzen naiz. Ez dut ezer gehiago izaten barruan. Sen-

tsazio hori gehiago gustatzen zait. Entrenamenduak gehiago aprobetxatu ditudala iruditzen zait. Eta ederra da irteera puntuan alde batera begiratu eta Cat Ferguson ikustea, bestera begiratu eta Marlen Reusser ikustea, nire erreferente diren txirrindulariak. Beste maila batean daude, jakina, baina eurekin batera korritzeko aukera izatea itzela da.

Zelan sentitzen zara Eulen-Amenabarren?

Oso pozik. Hasieratik oso gertuko jendea iruditu zitzaidan, familia baten modukoa, eta, gerora, hala dela egiaztatu dut. Giro bikaina dugu eta asko baloratzen dut hori.

Zeintzuk dira aurtengo helburuak?

Kategoria berri honetara egokitzea da helbururik inportanteena. Gero, lasterketei dagokienez, Du-

rango-Durangoko klasikoa buru-belarri prestatzen nabil. Asteazken pare bat bider zirkuitu hori egiten nabil entrenamenduetan. Lasterketa ondo egiteaz tematuta nago. Umetatik urtero-urtero amagaz eta aitita-amamekin ikusi dut karrera hori San Juanen. Parte hartzeak bakarrik sekulako ilusioa egiten dit.

Zer deritzozu San Juaneko igoerari?

Askok gustatzen zait. Zenbat eta aldats gogorragoa izan, hobeto niretzat. Lehen, hobeto moldatzen nintzen esprintean eta lasterketa ez hain gogorretan, baina azken hileetan konturatu naiz oso ondo nabilela aldats gogorretan. Lehen, aldatsetan ez nenbilen ondo, baina pisua galdu dut, buru-belarri ibili naiz mendateetan gora eta behera, eta esango nuke bide honetik noala. Arlo guztietan ondo dabilen ziklista naizela esango nuke, egoera desberdinetara egokitu naitekeela.

Amak urte asko eman du ziklo-krosean. Beragandik datorkizu afizioa?

Bai. Umetatik bizi izan dut etxean. Aurretik, eskian eta triatlloan ibili zen. Amaren aholku guztiak oso baliotsuak dira niretzat. Berak beti dio ziklo-krosean ez zela ona, baina niretzat erreferente nagusia da. Ama aldamenean izatea garrantzitsua da niretzat. Lasterketa guztietara laguntzen dit. Mallorcara ama, amama eta ahizpa etorri ziren.

Frontenisa bultzatzeko txapelketa Durangon

FRONTENISA Maialen Bilbao frontenis jokalaria txapelketa bat antolatu du Ezkurdi Jai Alai martxoko azken astebururako. Emakumeen frontenisari bultzada bat ematea da helburua. Izen ematea martxan da eta maila bi daude: emakumeak eta mistoa

J.D. DURANGO

Maialen Bilbaok (Durango, 1997) bi-hiru urte zeramatzan Durangon frontenis txapelketa bat antolatu guran, eta nahi hori errealitate bihurtuko du laster. Bere ekimenez, eta Durangoko Pelotazale Klubaren laguntzagaz, binakako frontenis txapelketa antolatu du martxoaren 28rako eta 29rako. Txapelketa Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan jokatu da.

Inguruan kirol ezaguna ez denez, frontenisa ezagutaraztea da helburua, batez ere emakumeen frontenisa. Maila bi egongo dira: emakumeena eta mistoa. Izen ematea martxan da eta 689 024 635 telefonora deituta edo WhatsAppera idatzita egin daiteke (30 euro bikoteko).

Orain arte izena emandakoe-tatik gehienak kanpokoak dira (Logroño, Zaragoza, Salamanca), eta, tartean, Espainiako txapelketan aritutako bikoteren bat dago. Bilbaok eskualdeko joki-



Maialen Bilbao, txapelketa batean pilota jotzera doala.

lariak parte hartzera gonbidatu ditu. "Ni ere horrela hasi nintzen, txapelketetan parte hartzen, eta asko ikasten da. Gainera, jendea ezagutzen duzu", esan du. Martxoaren 28an txapelketa mistoa jokatu da, egun osoan zehar,

eta hurrengo egunean emakumeena. Bilbao orain bost bat urte hasi zen txapelketak jokatzen, eta gaur egun maila handian dabil. 2025ean klubaren arteko Espainiako binakako txapelketa irabazi zuen, Ana Garciagaz.



Bilbon EITBko egoitza nagusian egindako aurkezpeneko irudi bat.

Mallabiak pilota egokituko jardunaldia hartuko du

PILOTA Jardunaldi honen ondoren, txapelketako finalak Basaurin jokatu dituzte, martxoaren 1ean

J.D. MALLABIA

Euskal Pilota Egokitua Sariak jauzi kaulitatibo bat eman du aurtun, orain arte Gipuzkoara mugatzen zen ekimena Arabara eta Bizkaira ere zabalduta. Bizkaiko Irekiko jardunaldi bat Mallabiko pilotalekuan jokatu da domeka honetan.

Jardunaldia 10:30ean hasiko da, adimen-desgaitasuna duten pertsonen maila mistoko lehiaketagaz. Ondoren, 12:30ean, desgaitasun fisikoa duten kirolarien txanda izango da, gurpildun aulkiko modalitatean. Jardunaldi honen ondoren, finalak

Basaurin jokatu dituzte, martxoaren 1ean.

Inklusioa helburu

EPE eta Euskal Irrati Telebistaren elkarlanetik sortutako proiektu berriak helburu nagusi bi ditu: pilota egokituari ikusgarritasuna ematea eta kirol egokituko kirolariak pilotara erakartzea.

Bizkaiko Irekiari Gipuzkoakoak hartuko dio erreleboa, martxoan Lasarren, eta apirilean Zumarragan; Arabako Irekia irailean eta urrian jokatu da, Amurrian eta Laudion.



JOKALDIA

ENERITZ ITURRIAGA MAZAGA TXIRRINDULARI OHIA

Etiket hurbilago

Aurtun erabaki bat hartu behar izan dugu Eneicat taldean: kategoriaz jaitsi gara. Ez gara gehiago Continental profesional taldea. Maila horretan mantentzeko behar den finantziazioari aurre egitea bideraezina bihurtu da guretzat, eta estatuan ezartzen diren baldintzak gehiegi izan dira gure errealiterako.

Halako erabakiek beti uzten dute zapore gazi-gozoa. Alde batetik, urteetan egindako lanari eta ametsei lotutako maila bat uzten duzu atzean. Bestetik, ordea, egia da urte askotan lehenengoz arnasa apur bat lasai hartzeko modua dudala. Pistoia apur bat jaitsi dut. Erritmoa moteldu.

Denbora konturatu barik doa. Egutegiak, bidaiek, presioak eta exigentziak egunerokoa jaten dute. Halako batean, konturatzen zara gero eta arreta handiagoa jartzen duzula galtzen den horretan: nire alabarekin denbora gehiago pasatzea, etxekoekin lasai egotea... Osasunak ere eskertuko du geldialdi txiki hau. Batzue-

"EZ GARA GEHIAGO CONTINENTAL PROFESIONAL TALDEA. FINANTZIAZIOARI AURRE EGITEA BIDERAEZINA IZAN DA GURETZAT"

"DENBORA KONTURATU BARIK DOA. EGUTEGIAK, BIDAIEK, PRESIOAK... EGUNEROKOA JATEN DUTE"

tan, atzerapausoak aurrera begiratzeko balio du. Umeen artean txirrindularitza sustatzeko akademiarekin betiko moduan jarraituko dugu. Hor dago gure oinarria. Martxoaren 5ean eta 6an Traña-Matienako eta Abadiño ikastetxeetako 5. eta 6. mailako gaztetxoekin martxa bat egingo dugu, txirrindularitzarako zaletasuna sustatzeko asmoz. Etiket hurbilago ibiliko naiz aurtun, eta horrek aukera emango dit harreman hori estuago lantzeko.

Gainera, akademiaren bidez triatloi taldeekin elkarlanean hasteko asmoa dugu. Badakigu triatloian bizikleta funtsezko espezialitate dela, eta gazte askok potentzial handia dutela arlo horretan. Orain arte, euren lizentziarekin ez zuten erraztasunik ziklismoko lasterketetan parte hartzeko; aurrerantzean, gure lizentziaren bidez atea irekiko diegu. Horrela, espezialitate honetan lehiatu eta hobetzeko aukera izango dute, diziplinen arteko zubiak eraikiz.

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

OTSAILAK 20, BARIKUA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
OTSAILAK 21 ZAPATUA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
OTSAILAK 22, DOMEKA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
OTSAILAK 23, ASTELEHENA
09:00-09:00
Irigoién, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
OTSAILAK 24, MARTITZENA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17- Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
OTSAILAK 25, EGUAZTENA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
OTSAILAK 26, EGUENA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
24 orduraz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK

GOZATU GOZATEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozategia
📍 gozatugozategia



Ari
Astlehenean 9 urte egin zenituen, **Ari**. Zorionak, maitia, familiaren partez!



Iñaki
Otsailaren 23an, 6 urte. Hurrengo astlehenean, otsailak 23, gure **Iñakik** 6 urte egingo dauz. Zorionak etxeko danon partez!



Maider
Zorionak, Maider! Gure neska handiak 10 urte egin zituen otsailaren 16an eta musu potolo bat bidaltzen diogu familia guztiaren partez. Maite zaitugu.

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozategiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitetz Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.

OROIGARRIA

Pedro Maurtua Mendizabal

2026ko Otsailaren 17an hil da.

Milesker alboan egon zarien guztioi. Azken agurra familia artean izango da.

MENDIXAZ GOZATZEN JARRAIK

Etxekuek: Mila, Alaitz, Aitzol, Iñi, Olatz, Malen eta Orkatz.

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Urkioil gasolindegia ibilgailuetarako aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA
📍 BI-623, 48210 OTXANDIO



Durangaldeko
Okm gida

Zabaldu zure negozioa lau haizeetara

*Durangaldeko OKm gida
erakusleiko ezin hobea duzu
eskualdeko merkataritza
eta zerbitzuetan.*

*Jarri gurekin harremanetan konpromiso
barik 688 731 402 telefonoan*

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

www.anboto.org/gida





LAU-HORTZA

MERTXE MUJICA

Euskara gara

Dagoeneko ate joka dugu 24. Korrika. Euskararen aldeko egitasmo zirrargarrienak, itze-lenak, hunkigarrienak... Atharratzetik Bilbora egingo duen bidean, Durangaldeko bazterrak astinduko ditu martxoaren 28ko iluntzean eta gauean. AEKkideok eta inguruko laguntzaile prestuak ari gara Korrika aurkezten, lekukoa eramateko eskaerak kudeatzen, korrika txikiak antolatzen... Beti esan dut Korrika auzolan erraldoia dela, eta ezinezkoa litzatekeela aurrera ateratzea atzean boluntarioen lana egingo ez balitz. Biba zuek!

Aurtengo edizioan, aurkezpenetarako bideoan, Korrikaren 45 urteko ibilbidea islatzen saiatu gara argazkietan eta leloetan. Bada, gezurra badirudi ere, urte hauetan guztietan badaude gauza batzuk behin eta berriro errepikatzen direnak: aurpegietan poztasuna, lekuko atzean jendea saltoka eta brinkoka, pankartetako aldarriak, herria, komunitatea. Horretaz gain, ia mende erdi geroago helburu bertsuak ditu ekimenak. Batetik, euskararen kontzientzia suspertzea; eta, bestetik, AEKren eguneroko lana (izan Tuteran, Maulen, Murgian, Abadiñon edo Atharratzen) duintasunez aurrera eramateko dirua biltzea. Ea posible den hemendik 45 urtera Korrika erabiltzea gure hizkuntzaren handitze prozesua munduari erakusteko, horrek zera erakutsiko lukeelako: euskara gara!

AKUILUA

"Ez dut astirik izan neure burua proban ipintzeko"

ANE LEGORBURU HERREROS 'EL CONQUISTADOR DEL CARIBE' REALITY-KO PARTAIDEA Dominikar Errepublikako Los Haitises parke nazionalen bizitako abentura oso aberasgarria izan da atxondarrarentzat, berak gura baino laburragoa izan den arren

Aitziber Basauri ATXONDO

Ane Legorburuk (Atxondo, 1996) lagunek animatuta erabaki zuen *El conquistador del Caribe* saioan parte hartzeko castingera aurkeztea. Aurtun, bigarrenetaz. Orain 10 urte ez zegoen behar adina prestatuta, baina orain, osteraz, gogoz trebatu da Karibera joan aurretik. "Une pertsonal gatz bat bizitzen nenbilen eta lagunek berriro ahalegintzera bultzatu ninduten, nire momentua zelakoan".

Zelakoa izan da Dominikar Errepublikan bizitako esperientzia?

Esperientzia laburra izan da, baina oso aberasgarria. Pertsona zoragarriak ezagutu ditut eta inoiz ez nuen pentsatuko horren hartu-eman ona izango nuenik taldeko kide guztiekin. Bestalde, mundu guztiak ez du aukera horrelako paraje ederrak bisitatzeko, haietan bizitzeko eta bertan lehiatzeko.

Beraz, errepikatuko zenuke?

Zalantzarik barik. Pena eman go lidake esperientzia hori berriro ere talde eta parte-hartzaile eurekin ezin partekatu ahal izatea. Baina uste dut bidean gauza asko geratu zaidala erakusteko, bai besteei bai neure buruari ere.



Ane Legorburu, Apatako plazan.

**"BERE BURUAGAZ
SEGURUAGO DAGOEN
ANE BAT EKARRI DUT
KARIBETIK; ANE
AUSART BAT"**

Zeure burua proban ipintzea lortu duzu? Askok prestatu zinen Karibera joateko?

Ez dut astirik izan neure burua benetan proban ipintzeko. Karibera joan aurretik, hemen landu nituen probak han egin

ahal izatea gura nuen. Ia hile bian nigaz entrenatzen egon den bihotz handiko pertsona izugarria ezagutu dut, bizitza zein sinplea den eta norbere buruari laguntzea zein garrantzitsua den erakutsi didana. Entrenatzaile bat baino gehiago, lagun bat eraman dut nigaz.

Irabazteko aukera ikusi zenuen?

Taldeakideen gaitasuna ikusita, ez nuen uste irabazlea izango nintzenik, baina gutxienez bateratze fasera heltzea espero nuen.

Zer egin zaizu gogorren?

Abenturako gogorrena, zalan-tzarik barik, eltxoak izan dira; kanpamentu aberatsean egonda ere bai. Alde guztietatik ziztatzentzuz, eta sentsazio benetan gogaikarria zen. Bestalde, batzarretan taldeko kideetarikoa bat izendatu beharra ere oso gogorra egin zitzaidan.

Bizitako zein momentu aukeratuko zenuke?

Lehenengo jokoa egin genuenekoa. Taldea oso ondo moldatu zen, ez genuen ia ezer egin behar irabazteko. Urduritasuna, ziurgabetasuna... lehenengo jokoa eta irabazle. Oso une hunkigarria izan zen; ezin izan nien malkoei eutsi ikurrina hartu genuenean.

Zer ekarri duzu Karibetik bueltan?

Bere buruagaz seguruagoa den Ane bat ekarri dut, Ane ausart bat, gura izanez gero proposatutako guztia lortzeko gai den Ane. Horrez gainera, bihotzeko lagun zirkulu bat ere ekarri dut, leialak eta zoragarriak.

Zer behar da konkistatzaile izateko?

Lehenengo eta behin, eta garrantzitsuenak, ausardia. Horrelako saio batera joatera ausartzeak asko esaten du pertsona bati buruz.



SAN ROKE BARRIA II

Eraikin berria bizi-kalitate berarekin Durangon.

2 eta 3 logelako 47 etxebizitza berri, San Roke Barria II. Sukaldea guztiz hornitua eta armairuak gela bakoitzean.



GARAJEA



TRASTELEKUA



GIMNASIOA



RELAX GUNEA

946 46 20 41 **sukia.com**

SALMENTA BULEGOA: Astxiki kalea, 1. Durango

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa